



Gazteak, sare sozialak eta informazioa: kontsumo portaerak aztertuz



Eka. 16 - Eka. 17 2025

Kod. I01-25

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2025

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Eka. 16 - Eka. 17 2025

Kokalekua

Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

20 ordu

Webgunea

<http://www.ikusiker.eus>

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

Informazioaren paisaia aldakorra da, eta digitalizazioaren aroan hazten ari den belaunaldiak ezarriko ditu hurrengo hamarkadetako joerak eta komunikazio moduak. Gazteek informazioa eskuratzeko eta ulertzeko dituzten ohiturek euren jarrera, erabakiak eta munduarekiko ikuspegia baldintzatzen dute, eta, aldi berean, gizarte osoaren etorkizuna moldatzen laguntzen dute.

Uda Ikastaro honek gazteek informazioarekiko duten ikuspegia sakonki ulertzeko helburua dauka. Horretarako, 2024-2025 ikasturtean, 11 eta 23 urte bitarteko Euskal Herriko gazteen informazio kontsumoen gainean, Ikusiker Behategiak egindako ikerketa kuantitatibo eta kualitatiboaren emaitzen gaineko hausnarketa egingo da. Era berean, zerbitzu publikoaren markoan mugitzen diren zenbait telebista katetako albistegi arduradunen eta editoreen ikuspuntua ezagutuko da, baita komunikazio eta prentsa arloko profesionalena ere.

Gazteen kontsumo portaeretan sare sozialek duten pisua aintzat hartuta, informazioaren esparruan jasotzen duten edukien kalitateari eta egiazkotasunari buruzko hausnarketa proposatuko da, sare sozialek eta plataforma ezberdinek euren iritziak eraikitzeke duten eraginari erreparatuz. Uda Ikastaro honek gazteen ekosistema digitalean informazioak betetzen duen lekua zein eta nolako den aztertuko du.

Helburuak

Gazteen informazio kontsumo ohiturei buruzko ulermena zabaltzea: gazteek informazioa nola kontsumitzen duten, non eta zein kanaletan eskuratzen duten, eta horren inguruko ohitura eta joerak ezagutzea.

Digitalizazioaren eragina gazteen ikuspegi eta jarreretan aztertzea: informazioaren ulermenean eta euren munduarekiko ikuspegian, teknologiak eta sare sozialek gazteengan duten eragina ikertzea.

Gazteen informazio kontsumoaren etorkizunari buruzko hausnarketa sustatzea: informazioarekiko gazteek duten ikuspegiaren bilakaera aztertzea, eta horrek gizartean eta komunikazioaren etorkizunean izan dezakeen eragina.

Digitalizazioan hazitako eta hezitako gazteen behar informatiboak asetzeko, telebista kanalek plazaratzen duten eskaintzaren azterketa egitea.

Antolakuntza



Lankidetzak



Programa

2025-06-16

09:00 - 09:15	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Gazteak, Sare Sozialak eta informazioa: kontsumo portaerak aztertuz Garazi Sánchez Murciano UPV/EHU - UPV/EHUko irakaslea eta IKUSIKER BEHATEGIko Ikerlaria
09:15 - 10:15	“Euskadiko gazteen izaerak, portaerak eta ikuspegiak” Gazteen Euskal Behatokia Oskar Longo Imatz Eusko jaurlaritzak - Eusko Jaurlaritzako Gazteriako arduraduna
10:15 - 11:15	“Gazteak eta IKTak. Informazioa aztergai.” Garazi Sánchez Murciano UPV/EHU - UPV/EHUko irakaslea eta IKUSIKER BEHATEGIko Ikerlaria Ane Zugaza Goienetxea
11:15 - 11:45	Atsedena
11:45 - 12:45	“Gazteak eta euskarazko hedabideen kontsumoak” Euskarazko Hedabideen Kontsumoa Libe Mimenza Castillo UPV/EHU - Behategiko arduraduna
12:45 - 14:00	Mahai ingurua: “Gazteak eta gertuko informazioa” Gorka Peñagarikano Goikoetxea Argiako erredaktorea Oihane Agirre Unzueta Goiena - Goiena Komunikazio Taldea / Ikus-entzunezkoen zuzendaria Beatriz Narbaiza Amillategi UPV/EHU - UPV/EHUko irakaslea eta IKUSIKER BEHATEGIko ikerlaria Nagore Arin Asuabarrena BERRIA - BERRIAko kazetaria

2025-06-17

09:00 - 09:15	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Gazteak, sare sozialak eta informazioa: kontsumo portaerak aztertuz Garazi Sánchez Murciano UPV/EHU - UPV/EHUko irakaslea eta IKUSIKER BEHATEGIko Ikerlaria
09:15 - 10:15	“Informazioaren lekua gazteen hitzetan” IKUSIKER BEHATEGIA Edorta Arana Arrieta UPV/EHU - UPV/EHUko irakaslea eta IKUSIKER BEHATEGIko

10:15 - 11:15	“Informazioa eta EITBren ikuspegi digitala” Oihane Mateos Oria EITB - EITB Mediako arlo digitaleko albistegietako burua
11:15 - 11:45	Atsedena
11:45 - 12:45	“TV3 eta informazioaren aldeko apustua” Medir Plandolit Casals TV3 - 3Cat-eko informazioko buru digitala Antoni Adrià Serra Mayoral
12:45 - 13:45	“RTVLAB. Publiko eta formatu berriak.” Isabel Sánchez Manso RTVE - Edukien kudeaketa RTVE Playn

Zuzendaritza



Garazi Sánchez Murciano

UPV/EHU

Garazi Sánchez Murciano (Larrabetzu, 1985) UPV/EHUko irakaslea eta ikertzailea da. Ikus-entzunezko sormen teknikak eta Ikus-entzunezko sormen prozesuak irakasgaiak ematen ditu, eta NOR ikerketa-taldeko kide da. Aurretik, ikus-entzunezko errealizadore gisa lan egin zuen EITBn 13 urtez. Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatua, Arte eta Ikuskizun Zientzietan masterra eta Arte Garaikideko Ikerketan doktorea da (UPV/EHU).



Edorta Arana Arrieta

UPV/EHU

UPV / EHUko irakaslea eta ikertzailea da 1988az geroztik. Aurretik, kazetari gisa lanean aritu zen ETBn, harrezkero hainbat ikus-entzunezko zein idatzizko komunikabideekin kolaboratzen du. Kazetaritzan lizentziatu zen 1982an, Euskal Herriko Unibertsitatean, eta 1995ean unibertsitate berean doktoratu zen. Irrati, telebistarako eta Interneteko programazioarekin lotutako gaiak irakasten ditu eta hainbat liburu eta artikulua argitaratu ditu gai horien inguruan. NOR ikerketa taldeko kidea da eta MINECO eta UPV/EHUK diruz lagundutako ikerketa proiektuetan lan egiten du.

Irakasleak



Oihane Agirre Unzueta

Goiena Komunikazio Taldea



Edorta Arana Arrieta

UPV/EHU

UPV / EHUKo irakaslea eta ikertzailea da 1988az geroztik. Aurretik, kazetari gisa lanean aritu zen ETBn, harrezkero hainbat ikus-entzunezko zein idatzizko komunikabideekin kolaboratzen du. Kazetaritzan lizentziatu zen 1982an, Euskal Herriko Unibertsitatean, eta 1995ean unibertsitate berean doktoratu zen. Irrati, telebistarako eta Interneteko programazioarekin lotutako gaiak irakasten ditu eta hainbat liburu eta artikulua argitaratu ditu gai horien inguruan. NOR ikerketa taldeko kidea da eta MINECO eta UPV/EHUK diruz lagundutako ikerketa proiektuetan lan egiten du.



Nagore Arin Asuabarrena



Jone Hernández Hernandez de Guereñu



Oskar Longo Imatz



Oihane Mateos Oria



Libe Mimenza Castillo

UPV/EHU

Libe Mimenza Castillo (Elorrio, 1988) kazetari, komunikazioaren ikertzaile eta hedabideetako iritzi-emaile euskalduna da. Euskal Herriko Unibertsitatean ikasi zuen kazetaritza, eta ondoren Multimedia Komunikazioko eta Gizarte Komunikazioko masterrak egindakoa da. Komunikazio digitalean eta transmedia alorrean egin du lan eta ikerketa, NOR ikerketa taldean, besteak beste. 2016tik hona, Euskal Hedabideen Behategiko koordinatzailea da.



Beatriz Narbaiza Amillategi

UPV/EHU

Beatriz Narbaiza Amillategi (Ermua, 1968) Kazetaritzan lizentziatua eta Ikus-entzunezko Komunikazioan doktorea. UPV-EHUko ikertzailea eta irakaslea gradu eta masterrean. Hainbat liburu-kapitulu eta artikulua argitaratu ditu.



Gorka Peñagarikano Goikoetxea



Medir Plandolit Casals



Isabel Sánchez Manso



Garazi Sánchez Murciano

UPV/EHU

Garazi Sánchez Murciano (Larrabetzu, 1985) UPV/EHUko irakaslea eta ikertzailea da. Ikus-entzunezko sormen teknikak eta Ikus-entzunezko sormen prozesuak irakasgaiak ematen ditu, eta NOR ikerketa-taldeko kide da. Aurretik, ikus-entzunezko errealizadore gisa lan egin zuen EITBn 13 urtez. Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatua, Arte eta Ikuskizun Zientzietan masterra eta Arte Garaikideko Ikerketan doktorea da (UPV/EHU).



Antoni Adrià Serra Mayoral



Ane Zugaza Goienetxea

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2025-06-16 ARTE
Orokorra	87,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	74,00 EUR
Matrikula exentzioa	61,00 EUR
Gazte tarifa	25,00 EUR
Euskalategi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	74,00 EUR
Elkar	74,00 EUR
Ikastaroak guztiontzat	74,00 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2025-06-16 ARTE
Orokorra	87,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	74,00 EUR
Matrikula exentzioa	61,00 EUR
Gazte tarifa	25,00 EUR
Euskalategi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	74,00 EUR
Elkar	74,00 EUR
Ikastaroak guztiontzat	74,00 EUR

Kokalekua

Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

Abandoibarra etorbidea. 48009- Bilbo

Bizkaia